



Arartekoaren ebazpena, azaroaren 14koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea edo iraungitzea erabakitzen duen ebazpenetan arrazoiak behar bezala eta hizkuntza ulergarrian azaldu eta arrazoitu ditzan, testu laburtuak erabili gabe.

Aurrekariak

1. Arartekoak 2011n ebazpen bat egin zuen pertsona askori Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa eteteari buruz¹. Bertan, bereziki azpimarratu zen oso garrantzitsua dela herri-administrazioek pertsona bati Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa eteteko prozeduraren aplikazioan entzunaldi, arrazoitze eta jakinarazpeneko bermeak betetzea, kontu handia jarriz entzunaldi printzipioa betetzeko, pertsonari banakako informazioa emateko eta lehenago oinarrizko gizarte-zerbitzuei edo dagokion enplegu zerbitzuari jakinarazteko.

Halaber, ebazpen horrek azpimarratu zuen Euskal Herriko Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema oso garrantzitsua dela gizarte kohesio eta gizarte babeseko eragile gisa. Era berean, ebazpenak azpimarratu zuen araudi berria, Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua aplikatzeak kudeaketan behar dituen doikuntzak prestazio ekonomikoen jasotzaileei edozein kalte saihesteko ahaleginez egin behar direla.

2. Hurrengo hiletan Arartekoak kexak jaso ditu. Kexa horiek Bizkaiko Foru Aldundiak, prestazioaren tituludunek enplegu eskaera aktiborik ez dutelakoan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa eteteko prozeduran izandako jokabideari buruzkoak izan dira (54/2010 ofiziozko espedientea). Halaber, kexak jaso dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazio asko 18/2009 Legean xedatutako betekizunak ez betetzeagatik. Zehazki, etxebizitza berean jaso beharreko gehienezko prestazio kopuruari buruzko muga, eta ohiko etxebizitzaz beste higiezinik ez izateari buruzko betekizun berria (33/2011 ofiziozko espedientea).

Horren ondorioz, argibideak eskatu dizkiogu Bizkaiko Foru Aldundiari honako kontuei buruz:

Tituludunak enplegu eskaera aktiboari ez eusteagatik **etetei** dagokienez

¹ Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 23koa. Horren bidez amaitu da iragarpen honen inguruko esku-hartzea: enplegu-eskari aktiboa mantentzen ez zuten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea



a) Arrazoi horregatik prestaziorako eskubidea etetea erabakitzeko jarraitutako prozedura; b) Prestazioa eteteko proposamena egin aurretik oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazi zaien, entzunaldiko izapidea egiteko; c) Etetea erabakitzeko ebazpenean entzunaldiko izapidea bete izana jasotzen den eta aurkeztutako alegazioak edo ezarritako epean aurkeztu ez izana eta iraupena aipatzen diren; d) Etetearen iraupena, 147/2010 Dekretuko 45.2 artikulua aplikatuz hilabete batez edo gehiagoz etetea ebatzi den, etetea hasteko ezarritako data; e) Prestazioa eten zaien pertsonen prestazioa berraktibatzeke jarraitu beharreko prozeduraren berri eman zaien; f) Prestaziorako eskubidea etetea ebazteko eta Diru-sarrera Bermatzeko Errenta prestazioaren tituludunei jakinarazteko erabiltzen diren ereduak (txantiloak) kopia.

Tituludunak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa arautzen duen araudi berriko betekizunak ez betetzeagatik **iraungitzeari** dagokionez:

a) Prestazioen iraungitzea ebazteko jarraitutako prozedura eta izapideei buruzko argibideak; b) Diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren tituludunek legez eska dakizkiekeen betekizunak bete izana baloratzeko aintzat hartutako informazioa; zehazki, begiratu diren erregistro publikoak; c) prestazioa jakinarazi eta iraungitzeko eredu automatizatuen kopia; d) Prestazioa iraungitzeko espediente kopurua erantzuna igortzeko datan; e) Aurkez litezkeen helegiteei erantzuteko aurreikusitako epea; f) Prestazioa iraungi zaien pertsonen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioen eskabide berrien aurrean foru aldundiak duen jarrera.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak honakoa erantzun du tituludunak enplegu eskaera aktiboari ez eusteagatik egindako **etetei** buruz:

a) Arrazoi horregatik prestaziorako eskubidea etetea ebazteko jarraitutako prozedura.

Foru aldundiak erantzun digunez, eteteko prozedura "Lanbiden ez inskribatzeagatik etete prozeduraren hastapen" idazki bat igorri hasten da. Idazki horretan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren tituludun hartzaleari jakinarazten zaio, hilabete jakin batean (gehienetan idazkiaren aurreko hilean) informazioa informatikoki gurutzatu ondoren egiaztatu dela bera edo haren elkarbizitza unitateko edonor ez zegoela gurutzaketa egin zen hilean enplegu eskatzaile izena emanda; halaber, jakinarazten zaio, arrazoi hori dela-eta, prestazioaren ordainketa etengo dela eta, hala ere, 10 egun balioduneko epea ematen zaiola bizilekuagatik dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren edo Lanbideren bulegoetan alegazioak egiteko.

Foru aldundiak jakinarazi du alegazioak aztertu ondoren etetea ala ez etetea ebazten dela, haien edukiaren arabera, gurutzaketa informatikoan okerren





bat egon daitekeelako edo legez derrigorrez izena eman behar ez duten elkarbizitza unitateko kideak izan daitezkeelako.

Etendako hilabetearen ostean berriz egiten da gurutzaketa informatikoa eta bertan ikusten bada enplegu eskatzaile inskribatu direla, automatikoki berrekiten zaiola prestazioa ordaintzeari. Betebehar hori bete barik jarraitzen badute, ordea, eteteari eusten zaio.

b) Prestazioa eteteko proposamena baino lehen oinarrizko gizarte zerbitzuei jakinarazi zaien entzunaldiko izapidea egin dezaten.

Foru aldundiak jakinarazi du oinarrizko gizarte zerbitzuek idatziz jasotzen dutela hasi izanaren berri, datuak haien postontzietan ere jartzen baitira. Erantsi dutenez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren tituludunek, hasteko idazkian alegazioak oinarrizko gizarte zerbitzuetan aurkezteko eskatzen zaien arren, Bizkaiko Foru Aldundian aurkezten dituzte idazkiak. Alegazioak zein ere den aurkezteko bidea aztertzen dira.

c) Etetea erabakitzen duen ebazpenean entzunaldiko izapidea bete izana jasotzen den, aurkeztutako alegazioak edo ezarritako epean aurkeztu ez izana eta haren iraupena aipatzen diren.

Foru aldundiak erantzun du foru aginduak eta jakinarazpenak orokorrean eta automatikoki sortzen direla, *"toda vez que lo contrario resultaría inviable por el número de resoluciones dictadas, suponiendo una vulneración clara del principio de eficacia que debe regir toda actividad administrativa"*.

Erantsi duenez, eteteko foru agindua behin betiko egintza administratiboa dela eta helegiteen legezko sistemaren bidez aurkaratu daitekeela; horrela jakinarazten zaie, berariaz, ebazpenaren jakinarazpenean, eta horrela, ebazpen administratiboaren aurkako alegazioak helegite bidez ebazten dira, berariaz.

d) Etetearen iraupena, 147/2010 Dekretuko 45.2 artikulua aplikatuz hilabetez ala hilabete gehiagoz etetea ebazten den, etetea hasteko kontuan hartzen den data.

Atal honetan errepikatu dute jakinarazi ondoren eta alegazioetarako epea iragandakoan edo egindako alegazioak ezetsiak direnean uzten diotela prestazioa kobratzeari. Hurrengo hilean berriz hasten da prestazioa Lanbiderekin datuak gurutzatu ondoren egiaztatzen bada tituluduna Lanbiden inskribatuta dagoela. Erakunde horretan izena eman barik jarraituz gero, ordea, eteteari eusten zaio izena eman arte.





e) Prestazioa eteten zaien pertsonen prestazioa berraktibatzen jarraitu beharreko prozeduraren berri ematen zaien.

Foru aldundiak jakinarazi duenez, eteteko prozedura hasteko idazkian jakinarazten zaiola, erakunde horretan izena eman ondoren, ez duela jo behar ez zerbitzu horren ez oinarritzko gizarte zerbitzuen bulegoetara agiririk ematera, inskribatzearen kontrola eta berrastea automatikoki egingo delako gurutzaketa informatikoaren bidez.

Halaber, Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Zerbitzuaren jendearen arretarako zerbitzuak edo oinarritzko gizarte zerbitzuak edo call center zerbitzua aipatzen dituzte prestazioaren tituludunak informatzeko bide gisa.

4. Arestian aipatu legez, ofiziozko espedientea ireki dugu foru aldundiaren jokabidea ezagutzeko, jakin dugunez, prestazio asko iraungiarazi zuelako, tituludunak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa arautzen duen legedi berriko betekizunak ez betetzeagatik. Tituludunak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa arautzen duen legedi berriko betekizunak ez betetzeagatik prestazioak **iraungitzeari** dagokionez, honako argibideak jaso ditugu:

a) Prestazioak iraungitzea ebazteko jarraitutako prozedurari eta izapideei buruzko argibideak.

Foru aldundiak jakinarazi du, Diru-sarreraren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aplikatuz eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko Lehen Xedapen Iragankorrean xedatutakoa betez, indarrean sartu zenetik gehienez ere urtebeteko epean aurreko araudiaren pean (Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzko apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua) onartutako prestazio guztiak eguneratu behar zirela, baita, azken batean, indarrean sartu aurretik onartutako guztiak ere.

Foru aldundiak informazioa gurutzatu zuen Bizkaiko Foru Ogasunaren Hiri eta Landa Katastroarekin; azken horrek, bestalde, beste foru ogasun bien eta estatuko ogasunaren katastro informazioa zeukan bilduta. Bildutako informazioak higiezinak izatea hartzen zuen, %100 edo parte hartze hutsak izan.

2010eko ekainean ondasunen jabe agertzen zirela antzemandako pertsona guztiei (4.800 inguru) idazki bana igorri zitzaizkien jakinarazteko, lege berria indarrean sartu ondoren, bete beharreko beste betekizun bat zegoela, eta antzeman zela haiek edo haien elkarbizitza unitateko kide batzuek ez zutelako betetzen; hori dela-eta, aurtengo uztailaren 18a arte, hamabi hilabete





geroago, dei egiten zitzairen, euren egoera araupetzeko. Era berean, beste idazki bana bidali zitzairen etxebizitza bakoitzeko Berme Errenta bi izateko mugak eragiten ziren tituludun guztiei. Idazki bietan jakinarazi zen, egoera aldatu ezean, prestazioa iraungiko zela.

Arestiko idazkiak jasota, 3.276 lagunek (%68,25) aurkeztu zituzten alegazioak 2011ko uztaile baino lehen. Alegazio horiek, kasu batzuetan, aztertu eta osorik onartu ziren, eta prestazioa berritu zen; 165 kasutan (%5,03), ordea, aztertu eta, tituludunak edo elkarbizitza unitateko kideren batek ohiko etxebizitzaz beste higiezinaren %100 zeukatela egiaztatu zenez, prestazioa iraungiarazi zen.

Alegaziorik aurkeztu ez zutenei automatikoki iraungiarazi zitzairen prestazioa joan den uztaileko nominarako. Iraungitzeko ebazpenaren ondoren, erantzun ziguten datarako aukerako 414 berraztertze-errekurtso aurkeztu ziren. Foru aldundiak jakinarazi du erabateko lehentasuna emango zaiela gai honek eragiten ez dien gainerako erabilzailleek aurkeztutako erreklamazioen aurretik.

Erantsi dutenez, txostena bidali zuten datan, 2011ko abuztuaren 17an, aipatu errekurtsu guztiak berrikusi zirela, eta berehala berrekin zitzaizela abuztuko nominan prestazioa ordaintzeari, emandako agiriak aztertuta, Bizkaiko Foru Ogasunean jasotako informazioa okerra dela egiaztatu den kasu guztietan, higiezinik ez daukatelako edo, eduki arren, %100 baino gutxiago daukatelako. Halako kasu guztietan prestazioa berrasteko foru aginduaren jakinarazpena jasoko dute, aurkeztutako errekurtsoei erantzunez. Aitzitik, emandako agiriak aztertu eta higiezinik ez edukitzeko betekizuna betetzen ez dela egiaztatu den kasuetan, ez dira berrasiko eta errekurtsogileek, data hartan 66 ziren, ezesteko foru agindua jasoko dute; hala ere, administrazioarekiko auzibidera jo dezakete, egokia baderitzote.

- b) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioaren tituludunek legez eska dakizkiekeen betekizunak bete izana baloratzeko aintzat hartutako informazioa; zehazki, begiratu diren erregistro publikoak.**

Arestiko puntuan herri ogasunen hiri eta landa katastroei buruz aipatutako informazioa aipatu dute. Erantsi dutenez, berrazterketan eta, ondorioz, banakako mailan, jabetza-erregistroan jasotako informazioa begiratu da.

- c) Jakinarazteko eta prestazioa eteteko eredu automatizatuen kopia.**

Foru aldundiak arestiko agiriak erantsi dizkigu.

- d) Prestazioak iraungitzeko espediente kopurua erantzuna igorritako datan.**

Uztaileko nominan 1.589 espediente iraungiarazi ziren.



e) Aurkeztutako errekurtsoei erantzuteko aurreikusitako epea.

a) puntuko informazioa jo dute.

f) Prestazioa iraungiarazi zaien pertsonen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioen eskabide berrien aurrean foru aldundiak duen jarrera.

Jakinarazi dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du aurreikusi neurri berezirik hartzea eskabide berrien hazkunderen aurrean, prestazio batzuk hurrengo nominan berrasiko direlako. Ohiko etxebizitzaz beste higiezinak dauzkaten pertsonen dagokienez, eskabide berria aurkeztu arren, ezetsi egingo dira, legezko betekizunetako bat ez betetzeagatik.

Hori guztia ikusita, emandako argibideak aztertu ondoren, egokia iritzi diogu honako gogoetak igortzeari:

Gogoetak

1. Hasteko, honako oharra egin behar da. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen Legea aldatzeko Lege proiektu bat ari da izapidetzen eta, bertan, xedatzen da Lanbidek egun foru aldundiak kudeatzen dituen espediente askotan esku hartuko duela. Halaber, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioaren betekizunei eragingo dieten beste lege aldaketa batzuk iragarri dira (legebiltzarrean). Honako gogoetak indarrean dagoen sistemari buruzkoak baino ez dira.
2. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa arautzen duen legeak hainbat betekizun aurkeztea eskatzen du eta kudeatzaile publikoei jendearen egoera pertsonal eta ekonomikoa zorrotasun handiz egiaztatzen die. Halaber, prestazio horren kudeaketan zenbait administraziok esku hartzen dute eta, beraz, Euskal Herriko Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemak izapide askori egin behar die aurre; horri erantsi behar zaio jendeak betekizuna betetzen dituen xehetasunez egiaztatzea eskatzen dela, eta erakunde honek badaki horrela egiten dela. Horri erantsi behar zaio prestazio hori oinarrizko premiak betetzera bideratzen dela, hots, familia askok duten diru-sarrera bakarra dela eta, beraz, hura desagertzeak egoera pertsonal oso larriak eta eteten denean alarma handia sortzen dituela. Hori dela-eta, prestazio horren ezaugarriak oso bereziak dira eta aintzat hartu behar dira haren kudeaketari eragiten dioten erabakietan.
3. Bizkaiko Foru Aldundiaren Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Zerbitzuak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioari lotutako espediente pilaketa handia pairatzen du, eta garrantzitsua da hori aintzat hartzea. Espediente horien



kudeaketa oso konplexua da, elkarbitza unitateen, hots, prestazioaren tituludunaren elkarbitza unitatea osatzen duten pertsonen bizimoduaren edozein aldaketak, hala nola osatzen duten pertsonen aldaketak, bizileku aldaketak, elkarbitza unitateko edozein kidek jasotzen dituen diru-sarrerak, eta abarrek, isla dutelako onartu zaien prestazioan. Espediente horietarako herri-administrazioen erregistroak kontsultatu behar dira, prestazioaren tituludunaren adierazpenak eta emandako informazioa egia diren egiaztatzeko. Bestalde, 2009ko urtarrilaren 1az geroztik lege aldaketa garrantzitsua egin da; izan ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioaren betekizunak eta lege araubidea aldatu dira, eta hori dela-eta zerbitzuak kudeatzen dituen prestazio ekonomikoen espediente guztiak berrikusi behar izan dira.

4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa norberaren, gizarte eta lan eskusio egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri ematen zaie. Oinarrizko premiei lotutako gastuei eta gizarteratze prozesu batek eragindako gastuei aurre egiteko sarrera nahikorik ez duten pertsoneri zuzenduta dago. Beraz, bizitzeko prestazio horren mende dauden pertsonak dira; hura barik familia askok egoera pertsonal oso larriak pairatuko lituzkete, beste sarrera iturririk ez daukatelako. Arartekoak eusko legebiltzarrari egindako 2010eko ohiko txostenean adierazi genuenez², tresna horiek abiarazi izanaren ondorioetako bat izan da txirotasun eta prekaritate egoerei eutsi eta, zehazki, pilaketako txirotasun tasa jaitzaraztea ahalbidetzea.
5. Arartekoak prestazioen etetei eta azken iraingitzei dagokienez izandako esku-hartzeen funtsezko puntuetako bat herri-administrazioek lege xedapenak betetzen zituzten eta, batez ere, entzunaldiko izapidea betetzen zuten ezagutzea izan da. Entzunaldiko izapidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 84. artikuluan orokorrean onartutako eskubidea da eta berariaz xedatzen da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 53. eta hurrengo artikuluetan, non prestazioa aldatu, eten edo iraingitzeko prozesuei buruzko arau komunak arautzen baitira.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi eta adierazi digu entzunaldiko izapidea betetzen duela; horren arabera, enplegu eskaera aktibo ez daukan tituludunaren prestazioa etetea ebatzen du, edo haiek aurkezteko epea igaro denean. Halaber, jakinarazi du prestazioari berrekiten diola tituluduna Lanbiden inskribatuta dagoela egiaztatzen duenean eta, beraz, enplegu eskatzaile inskribatuta ez emateagatik prestazioaren etetea hilabetez baino ez litzateke.

² Gizarte bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsoneri buruzko arloari dagokion atala, 2010eko txostena, www.ararteko.net.



Entzunaldiko izapidea betetzea funtsezkoa da eta ezin da alde batera utzi. Garrantzitsua da pertsonak prestazioa etetea proposatzeko arrazoiak ezagutu eta etetea gertatu aurretik alegazioak aurkeztu ahal izatea.

6. Arartekoak jasotzen dituen kexa askoren arrazoiak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioaren etena da. Erakunde honek maiz adierazi du ez datorrela bat betekizunak edo betebeharrak betetzen ez diren kasu guztietan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa etetearekin, ulertzen baitu erabaki horrek ondorio handiak dauzkala prestazioen onuradunengan eta, batez ere, uste duelako Legeko 99. eta hurrengo artikuluetan xedatutako zehapen prozedura egokiagoa dela, kasu batzuetan, zenbait jokabide zigortzeko eta pertsonak zer bete ez duten ezagutu eta haren neurriko zehapena izateko. Erakunde honek ez du jakin inoiz zehapen prozedurara jo denik; aitzitik, edozein betekizun edo betebeharrak ez betetzekotan jarraitutako prozedura etetea da. Eteteko prozeduraren ondorioz, pertsonak diru-sarrera batzuk jasotzeari uzten dio eta, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren jasotzailea izateko betekizunak betetzen jarraituz gero, hots, oinarrizko premiei aurre egiteko gastuak betetzeko sarrerarik ez daukanean, erabaki horrek garrantzi handia dauka.

147/2010 Dekretutik, etetearen iraupena mugatua da zenbait arrazoi betetzen direnean, besteak beste, enplegu eskaera aktibo izan ez denean. Dekretuko 45. artikulua honakoa xedatzen du: *"43. artikulua 2. paragrafoa a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango da lehen aldiz gertatzen denean eta 3 hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen."*

18/2008 Legeko 26. artikulua xedatzen duenez, etetea eragin zuen arrazoiak desagertzeak prestazioaren sortzapena dakar –onartzeko betekizunak betetz gero-, etetearen iraupena hura eragin duten inguruabarrek irauteari lotuta baitago: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da"*.

147/2010 Dekretuak eteteko epe bat xedatzen du, baina legearen idazketak, ikusi denez, aurreikusten du etetea eragin duten arrazoiak desagertutako dataren hurrengo egunetik sortuko dela prestazioa; beraz, entzunaldiko izapidean enplegu eskatzaile inskribatuta egotea frogatzen dutenek "etetea eragin zuen arrazoiak desagertuta leukakete". Bizkaiko Foru Aldundiak (besteek bezala) 147/2010 Dekretua aplikatzen du eta, beraz, prestazioa hilabetez



eteten du, entzunaldiko izapidean enplegu eskatzaile inskribatuta egotea frogatu zein ez, legearen idazketak, adierazi denez, bestelako interpretazioetarako bidea eman arren.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak gutxienez 66 laguni iraungiarazi die Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa araudi berriko, 18/2008 Dekretuko eta 147/2010 Dekretuko betekizunak ez betetzeagatik.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa arautzen duen legedi berriak betekizun berriak eskatzen dizkie prestazioaren tituludunei. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzeko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko Lehen Xedapen Iragankorrek prozedura xedatzen du aurreko legediaren arabera (Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta haren aldaketak) onartutako prestazioaren tituludunak eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arabera onartutako prestazioaren tituludunak (halako kasuetan, aipatu 147/2010 Dekretua indarrean sartu aurretik onartu ziren) betekizunetara edukitzeko.

Aipatu Xedapenean xedatzen denez, administrazioak ofizioz berrikusi behar ditu 18/2009 Legea indarrean sartu ondoren eta hura garatzeko Dekretua indarrean sartu aurretik onartu edo berrikusi diren prestazioak. Halaber, xedatzen duenez, 18/2008 Legea indarrean sartu aurretik onartutako prestazioen tituludunei jarduketa horren berri emateko betebeharraren ondoren berrikusiko da.

Ez da aurreikusten, beraz, lehenagoko entzunaldia; aitzitik aurreikusten da pertsonari berrikusketaren eta, ondorioz, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren tituluduna izateko betekizun berrien aplikazioaren berri emango zaiola. 2010ean foru aldundiak idazki bana igorri zien, zekitenez, betekizunak betetzen ez zituzten pertsonen jakinarazteko aurreko legediaren arabera onartutako prestazioak berrikusiko zirela. Bertan adierazi zen prestazioa iraungiaraziko zela. Idazkian urtebeteko epea eman zen behar ziren izapideak egiteko. Horren ondorioz, prestazioen tituludunek urtebete izan dute informatzeko eta arau aldaketa zegoela jakiteko. Halaber, urtebete izan dute prestazioaren titulartasunari eusteko eskubidearen arabera jotzen zituzten alegazioak aurkeztu eta prestazioa onartzeko espedientean foru aldundiak zeukan informazioa okerra zela frogatzeko. Beraz, uler daiteke jakinarazpen hori jaso zen kasu guztietan ez zela babesgabetasunik egon. Bestalde, daukagun informazioaren arabera, foru aldundiak azkar ebatzi ditu iraungitzeko ebazpenen aurrean aurkeztutako helegiteak, eta hori oso ona da.

Hala ere, uste dugu prestazioa iraungitzeko (edo etete) ebazpenak eduki gehiago izan behar lukeela eta jendearentzat ulergarriagoa izan, eta zentzu horretan honako gogoeta egin behar dugu.





8. Ebazpenak iraungitzeko honako arrazoia ematen du: *"EZ DU BETETZEN LEGE BERRIKO ONDASUN HIGIEZINEN BETEKIZUNA, edo EZ DU BETETZEN LEGE BERRIKO + 2RGI ETXEB BETEKIZUNA"*.

Ebazpenean ez dira aipatzen, hala egonez gero, aurkeztutako alegazioak, eta ez dira aipatzen pertsona bakoitzari eragiten dioten arrazoiak; aitzitik, aplikatutako araudia dakarren testu laburtua baino ez dakar.

Prestazioa iraungitzeko ebazpenak administrazio ebazpen guztietarako xedatutako edukia bete behar du, 30/1992 Legeko 89. art. Bizkaiko Foru Aldundiak iraungitzea ebazteko erabilitako ebazpenak, ordea, ez dira banakakoak; aitzitik, orokorrean eta laburtuta jasotzen dituzte iraungitzeko arrazoia eta aplikatutako araudia. Zentzu berean, prestazioa etetea erabakitzen duten foru aldundiaren ebazpenek akats berbera daukate eta, beraz, gogoeta honek haiei ere eragingo lieke.

30/1992 Legeko 89. artikulua xedatzen duenez, ebazpenak bat etorri behar du egindako eskaerekin eta interesdunek agertutako kontu guztiei buruz erabaki behar du. Ebazpen horiek eskubide subjektiboak edo bidezko interesari eragiten diete eta, beraz, lege horretako 54. artikulua aplikatuta arrazoitu behar dira.

Jurisprudentziak, besteak beste AGren 2001eko urtarrilaren 30eko Epaiak, adierazi duenez, arrazoiak honetan datza: *"... en un razonamiento o en una explicación, o en una expresión racional del juicio, tras la fijación de los hechos de que se parte y tras la inclusión de éstos en una norma jurídica, y no sólo es una "elemental cortesía" como expresaba ya una STC de 17 de julio 1981, ni un simple requisito de carácter formal, sino que lo es de fondo e indispensable, cuando de exige, porque sólo a través de los motivos pueden los interesados conocer las razones que 'justifican' el acto, porque son necesarios para que la jurisdicción contenciosa-administrativa pueda controlar la actividad e la Administración, y porque sólo expresándolos puede el interesado dirigir contra el acto las alegaciones y pruebas que correspondan según lo que resulte de dicha motivación, que, si se omite, puede generar la indefensión prohibida por el art. 24. 1 de la Constitución"*.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa iraungi edo eteteko ebazpenek betekizuna ez betetzea eta ez betetze hori xedatzen duen araudia baino ez dituzte aipatzen. Oso laburtuak dira eta testua oso antzekoa da eten edo iraungitzeko arrazoi bera betetzen duten pertsonentzat. Orokorrean, haiek eragin dituen informazioa beste erregistro publiko batzuei egindako kontsultetan lortu da. Ebazpen horiek ez dituzte aipatzen entzunaldiko izapidean egindako alegazioak.

Arartekoaren aburuz, Bizkaiko Foru Aldundiak, erregistro publikoak kontsultatzerakoan lortutako informazioa ez ezik, jendeak aurkeztutako alegazioak ere hartu behar lituzke aintzat, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta



prestazioaren etete edo iraungitzeari dagokion espedientearen ebazpenean aipatu behar lituzke haiek. Egia da errekurtsoren ebazpenean xehetasunez azaltzen direla errekurtsoa onetsi edo ezesteko arrazoiak, baina horrek atzeratu egiten du haiek ukitutako pertsonak ezagutzea, aurkeztutako errekurtsoren ebazpena jasotzen duen eguna arte. Prestazioak iraungi edo eteteko ebazpenak oso laburrak dira, erabilitako prozesu mekanizatu eta automatizatuaren ondorioz; hori dela-eta, ez dira lotzen gobernu onaren arauari, zeinen arabera, **erabakiek, araudia bete ez ezik, informazio nahikoa jaso eta erraz ulertzeko modukoak izan behar baitute**. Errekurtsoren ebazpenak, aldiz, ondo arrazoitzen dira eta haietan erabakia hartzeko arrazoiak azaltzen dira. Kontua da, joan den udan burututako iraungitzeen kasuan izan ezik, errekurtsoren ebazpena luzatu egiten dela. Erakunde honen iritziz, prestazioa eten edo iraungitzeko ebazpenek informazio gehiago eduki behar dute; horrek, kudeaketari gardentasun handiagoa eman ez ezik, bidea ematen dio pertsonari hasieratik eta argiago ezagutzeko prestazioa eten edo iraungitzeko arrazoiak. Foru aldundiak aipatzen duen errekurtsoren lege sistema ezin da ohiko bidea izan arrazoi horiek xehetasunak ezagutzeko.

Bestalde, herri-administrazioaren jakinarazpenetan erabilitako hizkuntzak ulergarria izan behar du herritar guztientzat. Adierazi dugunez, oso garrantzitsua da oinarrizko premiei aurre egiteko prestazio ekonomikoa ez jasotzeko arrazoiak ezagutzea. Pertsona horiek, askotan, (gogoratu behar dugu gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak direla) ez daukate ezagutzarik administrazio hizkuntzaren ondorioak ulertzeko; beraz, eragiten dieten erabakiak hizkera ulergarri eta errazean idatzi behar lirateke eta pertsona jakin horri prestazioa eten edo iraungitzeko arrazoiak eta aurkeztu dituen alegazioak ez onartzeko arrazoiak azaldu behar lirateke. Horrek, seguruenik, administrazioaren beste sail batzuetan (jendearentzako arreta, administrazio baliabideak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, etab.) lana pilatzea saihestuko luke.

Ondorioak

Foru aldundiak prestazioak eten edo iraungitzeko prozeduren kudeaketa automatizatura jo du.

Betekizunak egiaztatzeko batez ere beste administrazio erregistroak, hala nola Lanbide edo hiri edo landa katastroak kontsultatuz egin du.

Prestazioa eten edo iraungitzeko erabakiak ondorio garrantzitsuak dauzka, norberaren, gizarte edo lan esklusioko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eragiten dielako eta oinarrizko premiei aurre egiteko erabiltzen delako.





Erabakia lehenago jakinaraztea, pertsonari eten edota iraungitzeko prozesua hasiko dela jakinaraziz eta alegazioak aurkezteko epea emanez, ordenamendu juridikoan aurreikusitako bermea da eta kasu guztietan erabili behar da.

Ebazpenek, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa eten edo iraungitzea erabakitzen den espedienteetan, argi izan behar lituzke erabakia hartzeko arrazoiak.

Txantiloien bidezko prozedura automatizatuak erabiltzeak antzeko ebazpenak dakartza, testu laburtu batekin eta kasu jakin bakoitzean eragin duten arrazoiak nahikoa zaldu barik. Hori ez dator bat gobernu onaren arauekin, hark herri-administrazioen erabakien jakinarazpenetan eta argibideetan gardentasuna bultzatzen baitu.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:

3/2011 IRADOKIZUNA, azaroaren 14koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari egina

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa eten eta iraungitzeko prozeduretan, lehenagoko entzunaldiko eta jakinarazpen pertsonaleko prozeduran aurreikusitako bermeak bete ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak behar bezala eta banaka argudiatu eta azaldu behar lituzke arrazoiak, hizkuntza ulergarri eta arrazoi bera betetzen duten pertsona guztientzat testu laburtu orokorrik erabili barik.

